

HEZIREN BATZORDE IRAUKORRA

PARTAIDEAK:

- Aloña (hezkuntzan aritua), Idoia (Oin Herri), Oihane (Ludotekako arduraduna), Miren Soloeta (Guraso elkarteko kirol arduraduna), Iñigo (eskolako ordezkaria), Iñigo (gurasoa eta hezkuntzan aritu), Ismene (Guraso Elkarteko kidea), Mariam (Guraso Elkarteko kidea), Oier (hezkuntzan aritua) eta Irati (hezkuntzan aritua)

LANDUTAKO GAIAK:

- ❖ Orain arteko ibilbidearen azalpena (Aurreko aktetan eskuragarri dago)
- ❖ Hezi batzordeko iraunkorrean egongo garenon errepasoa.



❖ Helduon Parte Hartze saiotik ateratako proiektuen lehenestea:

Aurreko ikasturte bukaeran Heziren 2. Asanbladan lehentasunak adostu baziren ere, berauek birplanteatu eta egungo behar, egoera eta gaitasunetara egokitzeko beharra ikusi da. Ondorengo gaiak identifikatu eta lan-ildoie hasiera emateko partaideak izendatu dira:

● AISIALDIA:

- ◆ **12-16 urte bitarteko nerabeekin asanblada** bat egin beraiekin batera beraientzako aisialdi eskaintza sortzeko.

➤ Noiz: urrian

- Arduradunak: Oihane, Oier
- ◆ **Ludoteka zerbitzuaren inguruko hausnarketa** haur eta helduen parte hartzea bultzatuz.
 - Noiz: ikasturtean zehar
 - Arduradunak: ludotekako arduraduna (Oihane) eta Guraso Elkarte
- **ELKARBIZITZA:**
 - ◆ Hasierako proposamenak oso interesgarria bazirudien, egun Baketik elkarteak proiektua aurrera eramateko zailtasunak erakutsi ditu. Ondorioz, beste elkarte batzuekin proiektua aurrera eramateko aukera aztertuko da.
 - Noiz: Gabonak bitartean
 - Nork: eskolak
 - ◆ **Auzo konpostaren erabilera uztartu eta kaleetako zikinkeria inguruko sentsibilizazioa** landuko da.
 - Noiz: Ikasturtean zehar
 - Nork: zero zabor, eskola eta ludoteka.
- **IRISGARRITASUNA:**
 - ◆ Eskolarako oinezko bidearen erabilera bultzatzeko diru-laguntza bat eskatzea aztertuko du Guraso Elkarteak.
- **ESKOLA INGURUKO ESPAZIOAREN INGURUKO HAUSNARKETA:**
 - ◆ Aurrekoari lotuta, **eskola inguruko azpiegitura zein erabileraren inguruan hausnartu, arazoak eta gabeziak identifikatu eta hemendik aurrerako lan-ildoak zehaztu.**
 - Noiz: ikasturtean zehar
 - Nork: Iñigo eta Irati
- **FORMAKUNTZA:** Landu nahi ditugun gaien inguruan heziko kide zein herritarrentzako aberasgarriak diren saioak.
 - ◆ Herri hezitzailea eskola herritarra.
 - ◆ Haur eta helduen aisialdia eta aisialdirako espazioak...
 - Noiz: Herri hezitzailearen ingurukoa Gabonak baino lehen eta gainontzekoak beharraren arabera.
 - Nork: Idoia, Oin Herriko kideak

- ❖ **Hurren Asanbladan jasotako informazioaren aurkezpena:** Hauek dira 3-12 urte arteko hurrek identifikatutako beharrianak:
 - Igerileku estalia.
 - Jolas parke bat moldatu edo berri bat sortu.Hurrengo Asanbladan, hauek gauzatzeko eman beharreko pausoak adostu eta gauzatuko dira.
- ❖ Hezik ordezkaritza du Herri-Olako batzordean eta Azaroko bileran Heziren hurrengo urteko helburuak aurkeztuko dira.
- ❖ **Hurrengo BATZORDE IRAUNKORRA AZAROAREN 11an egingo da Ludotekan.**